

2016ko ABENDUAREN 29an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **16 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2016ko abenduaren 29an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Ane Arruti Lopetegi and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Jarduneko kontu-hartzailea	Itziar Kortabarria Garitano and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

Osoko bilkura honetan egindako bozketa guztietan kontuan hartu da EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ane Arruti Lopetegi andreak bere botoa eskuordetzan utzi ziola bere taldearen bozeramaile Mikel Goenaga jaunari; eta hori, apirilaren 7ko 2/2016

Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 25.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

GAI-ZERRENDAA

1.- 2016ko AZAROAREN 24ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA: 2016ko AZAROAREN 21etik ABENDUAREN 23ra

Segidan, Alkatezak 2016ko azaroaren 21etik abenduaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA: 2016ko AZAROAREN 21etik ABENDUAREN 19ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko azaroaren 21etik abenduaren 19ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- 2016-2019 EPEALDIRAKO PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOA

2016 D 200 0016 espedientea

Akordio-zirriborrea irakurri ostean, batzarburuak horrela aginduta, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	7	(7 EH Bildu)
Abstentzioak:	2	(2 Irabazi Zarautz)

Ondorioz, adierazitako gehiengoaz, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Entitate honek onartutako 2016-KALD000004-00 ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua. Hortaz, beharrezkoa da plan ekonomiko-finantzario bat egitea, otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan jasotakoaren arabera.

Planak bermatu behar du aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua jarduneko ekitaldian edota hurrengoan betetzen dela.

Onartutako plan ekonomiko-finantzarioa Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali behar zaio, haren jarraipena egin dezan.

Espedientean dagoen dokumentazioa ikusi ondoren eta Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

PLAN EKONOMIKO-FINANZARIOA onaratzea. Hiru atal hauek ditu:

- 1.- Kontu-hartzailearen txostena
- 2.- Alkatearen memoria
- 3.- 2016-2019 epealdiko aurrekontu eszenarioa.”

5.- 8. ORDENANTZAREN ALDAKETA: PREZIO PUBLIKOAK

2016 C 210 0004 espedientea

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	—	

Horrela bada, adierazitako gehiengoaz, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“Antolakuntza Informazio Batzordeak 2017. urterako 8. ordenantza aldatzeko proposamena aurkeztu du.

Horrenbestez, Antolakuntzako informazio-batzordeak egindako proposamena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehena.- Onespena ematea Udal aginpidetako zerbitzuak edo administrazio jarduerak betetzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen 8. Ordenantzaren eranskinaren aldatetari.

Bigarrena.- Ezarritako prezio publikoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eragina izan dezaten.

**8. ORDENANTZA, ZERBITZUAK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO
PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

ERANSKINA

a) UDAL EUSKALTEGIA

Tarifak	euro
Aurrez aurreko ikastaroa/orduko	1,03
Autoikaskuntza zerbitzua/orduko	2,09
C2 profila on-line	3,17
Erretiratuentzako ikastaroak	Doan

b) UDAL TXAKURTEGIKO ZERBITZUA

Tarifak	euro
Egun edo frakzio bakoitzeko	11,05
Animalia bakoitzeko	54,15

c) HERRIKO AUTOBUSA

ITG tarifa-sisteman araututako tarifak eta erregelamendu horretan xedatutakoak aplikatuko dira, honako hauetan oinarrituta: a) Tarifen integrazioko sistema jartzeko Udalak sinatutako lankidetzeta-hitzarmena (Udalbatzarraren 2013ko irailaren 25eko akordioa) eta b) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua (Udalbatzarraren 2014ko azaroaren 26ko akordioa).

Jartzen diren aldirietako aparkalekuetan:

Tarifa	Ibilgailu bakoitzeko joan-etorria
Udalerrian jarritako aldirietako aparkalekuetan aparkatutako ibilgailu bakoitzeko erabiltzaileentzako autobus zerbitzua	1,00 €

d) UDAL HAURTZAINDEGIA

Tarifak	euro/hileko
Bazkaria	78,55
Askaria	17,12

Jangelako kuota hurrenez hurren % 25, % 50 edo % 75 murriztu ahal izango da, baldin haurra aste batean, bitan edo hirutan joaten ez bada, baina hutsegitea justifikatzen badu.

e) ZARAUZKO TURISMO BULEGOA: salmenta-gaiak

Tarifak (BEZ sartuta)	euro
Boligrafoa	1,00
Metalezko giltzatak	3,50
Gomazko giltzatak	3,00
Mahaiko erlojua	4,50
Aterkia (kirten borobilduna)	12,50
Poltsikoak hustekoa	8,50
Diru-zorro urdina	4,50
Diru-zorro marroia	5,50
Postalak	1,00
Posterra	3,00
Helduen kamiseta	12,50
Umeen kamiseta	8,50

Bisera	7,00
Intsignia-pina	2,00
Erlojua	17,00
Pegatina (toldo urdina)	0,90
“Zarautz” pegatina	2,50
Arkatza (Swarovski)	1,50
Libreta	2,50
Motxila	3,90
Balea	15,00
Taza	6,00
Txapa	2,50
Sisters poltsa	10,00
Sisters motxila	12,00
Sisters katilua	10,00
Sisters koaderno	8,00
Sisters liburua	9,95
Mugikorraren kargagailua	15,00

f) KULTURA ETA ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

Zarauzko Arte eta Historia Museoa: museoko sarrerak (bisita gidatua sartuta)

Tarifak	euro
Prezioa pertsonako	2,00
Prezioa pertsonako (10-20 pertsona arteko taldeak)	- % 10
Prezioa pertsonako (21 pertsonatik gorako taldeak)	- % 20
Zarauzko eskolak	Doan

Zarauzko Arte eta Historia Museoa: “Menosca kontu-kontari / Menosca cuento a cuento”

Taldeentzako prezioak	euro
Ipuin-kontalaria (ordu bat)	66,70
Ipuin-kontalaria (ordu bat) + beste jarduera bat (ordu bat)	97,50
Zarauzko eskolak	Doan

Zarauzko Arte eta Historia Museoa: “Menoscaren bila / En busca de Menosca”

Taldeentzako prezioak	euro
Jardueraren prezioa	87,25
Zarauzko eskolak	Doan

Zarauzko Arte eta Historia Museoa: “Menosca espedizioa / Expedición Menosca”

Taldeentzako prezioak	euro
Jardueraren prezioa	87,25
Zarauzko eskolak	Doan

Zarauzko Arte eta Historia Museoa: “Zarautz zure eskuetan / Zarautz en tus manos”

Taldeentzako prezioak	euro
Jardueraren prezioa	87,25
Zarauzko eskolak	Doan

Zarauzko Arte eta Historia Museoa: “Zarautz zure eskuetan” jarduera egiteko materialaren alokairua

Materialaren alokairua	euro
PDA alokatzea (3 ordu)	5,65
PDA alokatzea (09:00-16:00)	7,70
GPS alokatzea (3 ordu)	3,65
GPS alokatzea (09:00-16:00)	5,65

Zarauzko Arte eta Historia Museoa: Bisita kulturalak Zarautzik kanpora

Prezioa	euro
Prezioa pertsonako	22,60

Ibilbide gidatuak

Prezioa	euro
Prezioa pertsonako	2,50
Prezioa pertsonako (10-20 pertsona arteko taldeak)	- % 10
Prezioa pertsonako (21 pertsonatik gorako taldeak)	- % 20
14 urtetik beherakoak (heldu batek lagunduta)	Doan
Zarauzko eskolak	Doan

Kultura Departamentuko ikastaroak (plaza dantza...)

Prezioa	euro
Matrikularen prezioa pertsonako (gehienez 10 orduko ikastaroak)	15,90
Matrikularen prezioa pertsonako (11-20 ordu bitarteko ikastaroak)	31,80
Matrikularen prezioa pertsonako (20 ordutik gorako ikastaroak)	61,60

ZERBITZU ETA INSTALAZIO KULTURALEN ERABILERA

Udal argazki artxiboa:

Zarauzko Udal Argazki Artxiboa - Archivo Fotografico Municipal de Zarautzek (ZUAA-AFMZ) funtsen gaineko eskubide guztiak ditu.

Prezioa	euro
Erabilera Pribatua / Ez Pribatua (irabazi-asmorik gabekoa): CD (TIFF/JPEG):	4,65
Erabilera Pribatua / Ez Pribatua (irabazi-asmoa duena): CD (TIFF/JPEG):	61,60
«Kultur taldeek» eta «gizarte izaerako elkarteek» irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiten dituztenean:	Doako lagapena
«Kultur taldeek» eta «gizarte izaerako elkarteek» irabazi-asmoa duten jarduerak egiten dituztenean:	61,60
«Elkarte profesionalek» edo «sindikatuak» irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiten dituztenean:	4,65
«Elkarte profesionalek» edo «sindikatuak» irabazi-asmoa duten jarduerak egiten dituztenean:	61,60

Prestakuntza izaera duten jarduerak "irabazi asmorik gabekotzat" hartuko dira, eta kasu bakoitzerako jarritako prezioak aplikatuko dira.

KULTUR ZERBITZU ETA INSTALAZIOEN ERABILERA

Modelo aretoaren erabilera

Tarifa	euro
Eguneko tarifa	151,05

Modelo aretoa erabiltzeagatik prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo dira honako hauek: irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeak (Eusko Jaurlaritzako edo Zarauzko Udaleko erregistroan inskribatuta daudenak) eta irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoen taldeak (38/2003 Legeko 11. artikulua).

Modelo aretoko zerbitzuak

Tarifa	euro
Ekipamenduen arduraduna, 4 ordu edo frakzioa	90,63
Ekipamenduen arduraduna, ordu gehigarria	22,66
Sarrerren salmenta, 2 ordu edo frakzioa	45,32
Sarrerren salmenta, ordu gehigarria	22,66
Atezaina, 2 ordu edo frakzioa	45,32
Atezaina, ordu gehigarria	22,66
LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA	

Muntaia, desmuntaia, doiketak, etab., 1 ordu edo frakzioa	29,28
Soinuaren laguntza teknikoa, 1 ordu edo frakzioa	29,28
Argiztapenaren laguntza teknikoa, 1 ordu eta frakzioa	29,28
MATERIALAREN ALOKAIRUA	
Bideo-proiektagailua 4000	133,10
Aurretiko proiektzio eta retroproiektzio pantaila	66,55
Sonorizazioa (1 mota)	200,37
Sonorizazioa (2 mota)	229,78
Sonorizazioa (3 mota)	316,25
Mahaigaineko kondentsadore-mikroa	19,97
Haririk gabeko mikroa (eskukoa)	31,69
Haririk gabeko mikroa (solapakoa)	31,69
Kondentsadore-mikroa	26,62
Soinu-mugagailua instalatu eta erabiltzea	399,30
Aire zabaleko bozgorailua, hitz egiteko eta giro-musikarako	13,31
PC fokua (1000 w)	13,31
PAR LED RGB proiektagailua	13,31
Panorama simetrikoak (1000 w)	6,66
PAR 64 (1000 w) N 1-3-5	13,31
Segimenduko fokua	133,10
ROBE 150 fokua	33,28
ROBE 575 fokua	53,24
Formatu txikiko kontrolagailua	13,31
Avolites Titan Mobile kontrolagailua	66,55
Truss zati karratua	11,98
Dorrea (4 m)	26,62
Oihala (3,5 x 6,5 m)	13,31
Sonorizazioa + argiztapena (1 mota)	598,95
Sonorizazioa + argiztapena (2 mota)	439,23

Sanz Enea Kultur Etxea

Tarifak	euro
Erakusketa-gela (1 zk.)	65,15
Erakusketa-gela (2 zk.)	32,83
Erakusketa-gela (3 zk.)	32,83
Erakusketa-gela (4 zk.)	65,15
Bilera-gela (1. solairua)	16,41
Ordenagailua + inprimagailua	16,41
Telefonoa	27,50
Faxa	27,50
Erreprografia zerbitzua	27,50
Magnetoskopioa + TB monitorea	11,20
Diapositiben proiektagailua	11,20
Gardenkien proiektagailua	11,20

Ebro Etxea

Tarifak	euro
Sotoko areto handia (eskuina)	65,15
Behe-solairuko areto handia (eskuina)	65,15
Behe-solairuko areto handia (ezkerra)	65,15
Lehen solairuko areto handia (eskuina)	65,15
Lehen solairuko areto handia (ezkerra)	65,15
Tornu gela	65,15
Ordenagailua + inprimagailua	16,41
Telefonoa	27,70
Erreprografia zerbitzua	27,70
Magnetoskopioa + TB monitorea	11,28
Diapositiben proiektagailua	11,28

Villa Munda

Tarifak	euro
Udal Musikategiko gela (1 zk.)	54,38
Udal Musikategiko gela (2 zk.)	54,38

Vista Alegre

Tarifak	euro
Entsegu-gela	23,61

Tasa hori aldizkakoa da, alegia, zergaldia bat dator hiruhileko naturalarekin.

Gaztelekua

Tarifak	euro
Bilera-gela	35,59
Informatika gela	147,51
Erabilera anitzeko A gela	71,67
Erabilera anitzeko B gela	118,25
Ikuskizun aretoa	118,25
Tailer gela bakoitzeko	71,67
Zinema pilotalekuko kantxa	147,51

Aplikatu beharreko arauak:

- Adierazitako tarifak egunerokoak dira, Vista Alegreko entsegu-gela erabiltzekoa izan ezik; azken hori hilerokoa baita.
- Instalazioak egun erdian erabiliz gero, aipatutako tarifen ordainketa %60an libratuko da.
- Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateak (Eusko Jaurlaritzako edo Zarauzko Udaleko elkartearen erregistroan izena emanda daudenak) eta pertsona fisikoen taldeak (38/2003 Legearen 11. artikuluan jasotakoak), irabazi-asmorik gabeko jardueretan.
- Alkatetzaren Dekretu bidez tasa ordaintzetik salbuesteko baimena eman ahalko da, irabazi-asmorik gabeko jardueretan.

g) UDAL KIROLDEGIA

Hileko abonu-kuotak	Tarifa orokorra	Tarifa soziala
FAMILIAK		
Familiarena	34,63	22,19
Guraso bat gehi seme-alaba bat	26,65	17,34
Guraso bat gehi bi seme-alaba edo gehiago	29,32	19,06
BANAKAKOAK		
18 urtetik gorakoak	21,33	13,85
18 urte arteko gazteak	10,66	6,98
3 urte arteko haurrak	0,00	0,00
65 urtetik gorakoak	10,66	6,98

Familiak honela osatuta daude, prezio publiko hauen ondorioetarako: senar-emazteak edo erregistratutako izatezko bikoteak eta etxe berean bizi diren 21 urtetik beherako seme-alabak.

Abonuak hileroko automatikoki luzatuko dira, abonatuak baja ematen ez duen bitartean. Bajak ondorioa izango du eskatu eta hurrengo hilabetean.

Alta berrien matrikulak: alta berriak egiten direnean, dagokion tarifaren hilabete bat ordainduko da matrikula moduan. Federatuen tarifetan sartuta dauden abonatuak ez dute matrikula hori ordaindu beharko.

Tarifa sozialak: Tarifa sozialak lortu ahalko dituzte Zarautzen erroldatutako pertsonak baldin ondorengo baldintza betetzen badute:

Familien edo familia-unitateko partaide ez diren banakako pertsonen diru-sarrera haztatuek ez badituzte gainditzen familia-errenta estandarizatuaren 16.385,28 euro

Familia-errenta estandarizatu honela lortzen da: familia-errenta zati familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientea.

Familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientea honela lortzen da: familia-unitatea osatzen duen pertsona bakoitzari ondorengo koefizienteetatik dagokiona aplikatu ondoren lortzen den batura:

- a) Eskatzailea bi gurasoko familia-unitateko kide izatea: 1,00.
- b) Eskatzailea familia-unitateko kide ez izatea: 1,00
- c) Ezkontidea edo izatezko bikotea: 0,5.
- d) Familia-unitateko seme edo alaba bakoitza: 0,3.

Eskatzaileak ez badauka ezkontiderik edo izatezko bikoterik edo emakumeen aurkako indarkeriaren biktima bada, 0,3 batuko zaio adierazitako koefizienteari.

Familia-unitatea osatzen duten pertsonetako bati % 33ko edo gorakoko desgaitasuna onartu badio horretarako eskumena duen agintaritzak edo mendekotasun egoera aitortuta badauka (abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak eta horren garapeneko arauak xedatutakoari jarraiki), 0,3 batuko zaio dagokion koefizienteari.

Familia-errenta honela zehaztuko da: zerga-hobariaren aurreko urtean, familia-unitateko kide guztien PFEZen likidazio-oinarriak batuta (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga).

Ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortzio kasuetan, hitzarmen arautzaile edo epai judizialaren arabera seme-alaben zaintza daukan aita edo ama eskatzailearen zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura hartuko da kontuan, eta horri egungo ezkontide edo izatezko bikotearen diru-sarrerak gehituko zaizkio, halakorik edukiko balu.

Familia-unitatea honako hauek osatuko dute:

- a) Eskatzailea,
- b) bere ezkontidea (ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortziorik ez badago) edo izatezko bikote modura eskatzailearekin batera bizi den pertsona (behar bezala frogatuta baldin badago), eta
- c) bere zaintzapean etxebizitza berean bizi diren seme-alabak.

Tarifa sozialeko abonuen iraupena gutxienez urtebetekoa izango da.

Azaroan eta abenduan egingo dira tarifa sozialen abonua lortzeko eskaerak, eta urtero-urtero berritu beharko dira.

Ikastaroak, hileko prezioak	Abonatuak	– Abonatu gabeak
Aerobic (3 klase astean)	33,25	58,00
Body Pump (2 klase astean)	28,90	53,60
Spinning (3 klase astean)	39,00	63,75
Spinning (2 klase astean)	28,90	53,60
Spinning (1 klase astean)	14,45	26,80
Spinning + tonifikazioa (2 klase astean)	28,90	53,60
Spinning + tonifikazioa (3 klase astean)	39,00	63,75
Spinning+ Body Pump (3 klase astean)	39,00	63,75
Soinpilates (3 klase astean)	33,25	58,00
Pilates (3 klase astean)	39,00	63,75
Pilates (2 klase astean)	28,90	53,60
GAP (2 klase astean)	28,90	53,60
GAP (3 klase astean)	39,00	63,75
Hipopresiboak (2 klase astean)	40,20	57,76
Yoga (2 ordu astean)	28,90	53,60
Yoga (3 ordu astean)	39,00	63,75
Akuafitnes (3 klase astean)	43,60	65,55
Akuafitnes (2 klase astean)	30,80	52,75
Haurren igeriketa (2 klase astean)	30,80	52,75
Haurdunen igeriketa (2 klase astean)	40,20	57,76
Helduen igeriketa (3 klase astean)	50,25	72,20
Igeriketa entrenamendua (2 klase astean)	34,60	56,60

Zunba (2 klase astean)	28,90	53,60
Zunba (1 klase astean)	14,45	26,80
Zunba kids (2 klase astean)	28,90	53,60
Total training (2 klase astean)	28,90	53,60

Beste zerbitzu batzuk	—	Prezioa
Eguneko sarrera, 18 urtetik beherakoak		3,20
Eguneko sarrera, 18 urtetik gorakoak		5,75
Eguneko sarrera 10 pertsona arteko taldeak, 18 urtetik beherakoak		20,35
Eguneko sarrera 10 pertsona arteko taldeak, 18 urtetik gorakoak		40,60
10 sarrerako bonua, 18 urtetik beherakoak		20,35
10 sarrerako bonua, 18 urtetik gorakoak		40,60
Hitzaldi-aretoaren alokairua, orduko (kirol jarduerak, administrazioak eta erakundeak)		20,15
Hitzaldi-aretoaren alokairua, orduko (gainerako jarduerak)		50,65
Pista edo gimnasioak alokatzea, orduko, aldagelarik gabe		37,95
Pista edo gimnasioak alokatzea, orduko, aldagelarekin		50,65
Belar artifizialeko zelaia alokatzea, orduko, aldagelarik gabe		37,95
Belar artifizialeko zelaia alokatzea, orduko, aldagelarekin		50,65
Zinema frontoia alokatzea, argirik gabe, orduko		13,55
Zinema frontoia alokatzea, argiarekin, orduko		18,05
Aritzbatalde frontoia alokatzea, argirik gabe, orduko		14,70
Aritzbatalde frontoia alokatzea, argiarekin, orduko		20,35
Zinema frontoia hiruhileko abonatuak, argirik gabe, orduko		11,30
Zinema frontoia hiruhileko abonatuak, argiarekin, orduko		15,80
Aritzbatalde frontoia hiruhileko abonatuak, argirik gabe, hileko		12,45
Aritzbatalde frontoia hiruhileko abonatuak, argiarekin, orduko		18,05
Bainu-txanoak		5,10
Igerilekua, kalea/orduko erreserbatzea		42,30
Eskuoihalak		19,05
Squash (bazkide ez direnak)		5,70
Squash (bazkideak)		0,90
Entrenamendu pertsonalizatuak		16,40
Dutxa		1,50
Galdutako txartela berritzea		3,00

h) IBILGAILUAK HIRIGUNERA SARTZEKO TXARTELAK ESKURATZEA

Tarifak	euro
Ibilgailuak hirigunera sartzeko txartelak	15,10

Aplikatu beharreko arauak:

- Interesdunek txartel-eskaerarekin batera egindako diru-sarrerak ere prezio publiko horren ordainketa modura kontatuko dira.
- Txartelari uko eginez gero, eta txartela txukun eta behar bezala badago, ordaindutakoa itzuliko da.

i) PSIKOMOTRIZITATE ZERBITZUA

Tarifak	euro/hileko
Ikasle bakoitzeko	32,45

j) PASABIDE PLAKAK

Tarifak	euro
Pasabide plakak	33,80

k) PREBENTZIO ZERBITZUA**Ikastaroak**

Prebentzio zerbitzuak antolatzen duen edozein ikastarotan parte hartzeko matrikula:

Tarifak	euro
10 ordu arteko ikastaroak	10,00
11tik 20 ordura bitarteko ikastaroak	15,00
20 ordutik gorako ikastaroak	20,00
Gurasoen tailerra (urteko tarifa)	50,00

l) BERDINTASUN ARLOA**Ikastaroak**

Berdintasun arloak antolatzen duen edozein ikastarotan parte hartzeko matrikula:

Tarifak	euro
10 ordu arteko ikastaroak	10,00
11tik 20 ordura bitarteko ikastaroak	15,00
21etik 30 ordura bitarteko ikastaroak	20,00
31tik 50 ordura bitarteko ikastaroak	30,00
51tik 70 ordura bitarteko ikastaroak	40,00
70 ordutik gorako ikastaroak	50,00

m) IMMIGRAZIO ZERBITZUA**Ikastaroak**

Immigrazio zerbitzuak antolatzen duen edozein ikastarotan parte hartzeko matrikula 10 eurokoa izango da.

n) BABESPEKO APARTAMENTUAK

Babespeko apartamentuen tarifak BABESPEKO APARTAMENTUEN UDAL ARAUTEGIAREN arabera aplikatuko dira. Udaltzatzen 2010eko ekainaren 30ean egindako bilkuran onartu zuen arautegi hori, eta 2010eko irailaren 1eko GAO n argitaratu zen (167. zk.); gero, 2012ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran aldatu egin zen (2012ko martxoaren 30eko GAO, 63. zk.). Formula hau erabilita kalkulatu dira:

Ekarpena	Zenbatekoa
Erabiltzailea	$X - (\text{IPRE} \text{Maren } \% 95) = Y$
Udala	$Z - Y$
$X = \text{Erabiltzailearen diru-sarrera guztiak} / 365$ $Y = \text{Erabiltzaileak egunero egin beharko duen diru-ekarpena (maximoa Z)}$ $Z = \text{Zerbitzuaren eguneroko prezioa.}$	

Kontzeptua	Tarifa/plaza/eguna
Banakako gela	23,41
Gela bikoitza, pertsona bakarrak erabiltzekoa	27,04
Gela bikoitza, bi pertsonak erabiltzekoa	16,31

o) EUSKARA DEPARTAMENTUA:**Ikastaroak**

Tarifa	euro
AISA	10,00
DENDAKETAN	10,00
OSTALARITZA	10,00

p) BEHAR BEREZIAK DITUZTEN HAUR ETA GAZTEENTZAKO UDALEKU IREKIEN PROGRAMA

Tarifak	euro
Zarautzen erroldatutakoak, hamabostaldiko	51,55
Zarautzen erroldatutakoak, hileko	103,10
Zarautzen erroldatu gabeak, hileko	206,25

q) SURF ETA BODY BOARD ESKOLA:

Zarauzko hondartzako txandakako baimenak

Kategoriak	Hondartzako arloak: prezioak parte-hartzaile bakoitzeko eta orduko				
	Munoa	Eguzki Lore	Dama	Eremua	Kanala
1	0,50 €	0,50 €	0,50 €	0,50 €	0,50 €
2	1,00 €	1,00 €	1,00 €	1,00 €	1,00 €
3	3,00 €	3,00 €	3,00 €	3,00 €	1,00 €
4	4,00 €	4,00 €	4,00 €	4,00 €	4,00 €

SURF ESKOLEN KATEGORIAK:

1. kategoria: bere jarduera herrian bertan baldintza egokiak dituzten lokaletan egiten duten enpresak.
2. kategoria: bere jarduera herrian egiten duten ekintzaileak.
3. kategoria: bere jarduera Zarautzen kokatuta ez badute ere, bertako ostalariekin batera, aukera turistiko integralak eskaintzen dituzten enpresak.
4. kategoria: beste guztiak.

r) UDAL MUSIKA ESKOLA

2016-2017 ikasturtea

Ikasgaia	Matrikula (euro)	Ikastaroaren prezioa (euro)
Musika hizkuntza (haurrak)	25,00	185,00
Musika hizkuntza (helduak)	25,00	280,00
Instrumentua	25,00	360,00
Musika tailerra	25,00	280,00
Instrumentu multzoak	25,00	190,00
Musikoterapia	25,00	350,00

2017-2018 ikasturtea

Ikasgaia	Matrikula (euro)	Ikastaroaren prezioa (euro)
Musika hizkuntza (haurrak)	30,00	190,00
Musika hizkuntza (helduak)	30,00	290,00
Instrumentua	30,00	375,00
Musika tailerra	30,00	290,00
Instrumentu multzoak	30,00	200,00
Musikoterapia	30,00	350,00

2018-2019 ikasturtea

Ikasgaia	Matrikula (euro)	Ikastaroaren prezioa (euro)
Musika hizkuntza (haurrak)	35,00	195,00
Musika hizkuntza (helduak)	35,00	300,00
Instrumentua	35,00	390,00
Musika tailerra	35,00	300,00
Instrumentu multzoak	35,00	210,00
Musikoterapia	35,00	350,00

2019-2020 ikasturtea

Ikasgaia	Matrikula (euro)	Ikastaroaren prezioa (euro)
Musika hizkuntza (haurrak)	40,00	200,00
Musika hizkuntza (helduak)	40,00	310,00
Instrumentua	40,00	400,00
Musika tailerra	40,00	310,00
Instrumentu multzoak	40,00	220,00
Musikoterapia	40,00	350,00

- Matrikula formalizatzeko nahitaezkoa da ordainketa eginda edukitzea.
- Matrikularen zenbatekoa ez da itzuliko.
- Zozketa egin ondoren, itxaron-zerrenda bat osatuko da, ikasturtean zehar hutsik geratzen diren plazak betetzeko.
- Matrikula ezin da telefonoz egin.

BAJAK: baja emateko prozedura

Musika tailerra eta Musika hizkuntza:

Ikastaroa hasi eta gero bajaren bat badago, idazkaritzan jakinarazi beharko da. Ondorengo epeen arabera ordainduko dira kuotak:

- Baja, irailetik abendura arte (biak barne): abendura arte kobratuko da (abendua barne).
- Baja, urtarriletik martxora arte (biak barne): martxora arte kobratuko da (martxoa barne).
- Baja, apiriletik ekainera arte (biak barne): ekainera arte kobratuko da (ekaina barne).

Instrumentua

Ikastaroa hasi eta gero bajaren bat badago, idazkaritzan jakinarazi beharko da.

Kuoten ordainketa:

- Baja emandako instrumentuaren itxaron-zerrendan ikasleak badaude, baja hartu duen ikaslea ordezkatu egingo da, eta ez du kuota gehiago ordainduko.
- Baja emandako instrumentuaren itxaron-zerrendan ikaslerik ez badago, baja hartu duen ikasleak ikasturte osoa ordaindu beharko du.

Matrikula egitearekin batera, ikasleak onartu egingo ditu Musika Eskolako arauak.

6.- 10. ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA: TAO. HASIERAKO ONESPENA

2016 C 210 0005 espedientea

Proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	—	

Beraz, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak honako erabaki hau hartu du:

“Segidan, 10. Ordenantza Fiskalaren eranskina aldatzeko proposamena aztertu da.

Espedientean dagoen dokumentazioa ikusi ondoren eta Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehenena.- Hasierako onespena ematea 10. ORDENANTZA FISKALA, TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA (TAO), aldatzeari, Eranskinaren idazkera berriaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezartzen duenaren arabera. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantza Fiskalen aldaketa behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Onartutako aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

10. ORDENANTZA FISKALA: TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN APARKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

Zerga-kuotak:

1.- Aparkatzeko bereizgarria edo baimena lortu eta, kasu bakoitzean, dagokion baldintzetan aparkatu ahal izateko, Zarauzko Udalerriko Bide Publiko Jakinetan Ibilgailuen Aparkamendua arautzeko Ordenantzan ezarritakoaren arabera, honako zerga-kuotak ezarri dira urte edo frakzio bakoitzeko:

- Egoiliarren txartela/bereizgarria, (etxebizitza bakoitzeko):

Txartela edo bereizgarri bakoitzeko	30,00 euro
-------------------------------------	------------

- Egoiliarren aparteko txartela/bereizgarria, (etxebizitza bakoitzeko):

Txartela edo bereizgarri bakoitzeko	30,00 euro
-------------------------------------	------------

- Jarduera ekonomikoekin lotuta dauden ibilgailuen txartela/bereizgarria, (enpresa bakoitzeko):

Txartela edo bereizgarri bakoitzeko	30,00 euro
-------------------------------------	------------

- Jarduera ekonomikoekin lotuta dauden ibilgailuen txartela/bereizgarria (TAO ordenantzako 9.c art.):

Txartela edo bereizgarri bakoitzeko	45,00 euro
-------------------------------------	------------

- TAO ordenantzako 10. artikuluan araututako txartela/bereizgarria:

Txartela edo bereizgarri bakoitzeko	45,00 euro
-------------------------------------	------------

- Egoiliar ez diren langile eta autonomoen ibilgailuen txartel/bereizgarria (TAO ordenantzako 10 bis. art.):

txartela edo bereizgarria hilerokoa	25,00 euro
-------------------------------------	------------

Arautu gabeko zonetako egoiliarren txartela/bereizgarria, (TAO ordenantzako 11.a art.):

Txartela edo bereizgarri bakoitzeko	10,00 euro
-------------------------------------	------------

- Alboko udalerrietako auzo jakinetako egoiliarren ibilgailuen txartel/bereizgarria (TAO ordenantzako 11.b art.):

txartela edo bereizgarria	30,00 euro
---------------------------	------------

- Mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuen txartela/bereizgarria: 0,00€

2.- Aparkatzeko baimena, epe jakin baterako, honako tarifa-zona hauetan:

Errotazio handiko zonetan aparkatzea, erabiltzaile guztientzat:

Denbora	Errotazioa handia
15 min.	0,00
30 min.	0,50
60 min.	1,30
90 min.	2,50
SALAKETA DEUSEZTATU: 2 orduko muga gainditu gabe	15,00
SALAKETA DEUSEZTATU: 2 orduko muga gaindituta	20,00
SALAKETA DEUSEZTATU: Tiketa jarri ez delako	20,00

Araututako gainontzeko zonetan aparkatzea, zirkulazio-baimenaren helbidea Zarautzen duten ibilgailuentzat:

Denbora	Zona 1-6	Zona 3-5	Zona 2-4	Ibilgailu industrialak
0-15 min.	0,00	0,00	0,00	0,00
30 min.	0,42	0,35	0,25	0,25
60 min.	0,84	0,75	0,50	0,50
90 min.	1,26	1,15	1,00	1,00
120 min.	2,16	1,75	1,50	1,50
150 min.	2,70	2,20	2,00	2,00
180 min.	3,24	2,60	2,40	2,40
210 min.	4,83	3,80	2,70	2,70
240 min.	5,52	4,75	3,00	3,00
Egun osoa	11,04	7,50	6,00	6,00
SALAKETA DEUSEZTATU (2 orduko muga gainditu gabe)	15,00	15,00	15,00	15,00
SALAKETA DEUSEZTATU (2 orduko muga gaindituta)	20,00	20,00	20,00	20,00

SALAKETA DEUSEZTATU (tiketa jarri ez delako)	20,00	20,00	20,00	20,00
---	-------	-------	-------	-------

Araututako zonetan aparkatzea, gainerako erabiltzaileentzat:

Denbora	Zona 1-6	Zona 3-5	Zona 2-4	Ibilgailu industrialia
30 min.	0,45	0,40	0,30	0,30
60 min.	0,90	0,80	0,60	0,60
90 min.	1,35	1,20	1,10	1,10
120 min.	2,40	2,20	1,60	1,60
150 min.	3,00	2,70	2,00	2,00
180 min.	3,60	3,00	2,50	2,50
210 min.	5,25	3,85	2,70	2,70
240 min.	6,00	4,75	3,00	3,00
Egun osoa	12,00	7,50	6,5	6,5
SALAKETA DEUSEZTATU (2 orduko muga gainditu gabe)	15,00	15,00	15,00	15,00
SALAKETA DEUSEZTATU (2 orduko muga gaindituta)	20,00	20,00	20,00	20,00
SALAKETA DEUSEZTATU (tiketa jarri ez delako)	20,00	20,00	20,00	20,00

(*) Salberdineko aparkalekua, egun osoa: 7,50 €

Udaldirako zona berezietan aparkatzea:

	Zona bereziak
240 minutu	2,50 €
Egun osoa	5,00 €
SALAKETA DEUSEZTATU (2 orduko muga gainditu gabe)	15,00 €
SALAKETA DEUSEZTATU (2 orduko muga gaindituta)	20,00 €
SALAKETA DEUSEZTATU (tiketa jarri ez delako)	20,00 €

Tiket bereziak

20 tiketeko taloitegia, aldi baterako ostaturik emateko establezimenduentzat (egun osoan aparkatzeko)	80,00 €
10 tiketeko taloitegia, etxebizitza bakoitzeko (egun osoan aparkatzeko)(*)	60,00 €
20 tiketeko taloitegia, etxebizitza bakoitzeko (4 ordutan aparkatzeko)(*)	60,00 €
1 ordu aparkatzeko tiketa, dendetako bezeroentzat	0,40 €
2 ordu aparkatzeko tiketa, dendetako bezeroentzat	1,00 €

(*) Gehienez taloitegi bat etxebizitza bakoitzeko; bi aukeretako bat hautatu beharko da.

3.- 7 zonan aparkatzeko baimena (autokarabanak): 3,00 €/eguneko

4.- Txartel berria ateratzea, ibilgailua edo etxebizitza aldatzeagatik edo beste arrazoiren batengatik: 5,00 €

5.- Txanpon-txartela ateratzea: 5,00 €.

7.- INFORMAZIOA KUDEATZEKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA LANPOSTUAN BEHIN BETIKO KOKATZEA

2016 I 339 00 21 espedientea

2016ko martxoaren 31ko osoko bilkuran, Udalbatzarrak honako erabaki hauek hartu zituen:

I.- Informazioa kudeatzeko teknikari laguntzaile lanpostu berriaren fitxa onartzea.

II.- Garrastazu andrearen lanpostu-aldaketa onartzea berresleipenaren bitartez, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54.bis artikuluari eta urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 44. artikuluari jarraiki, kontuan hartuta liburutegiko koordinatzaile lanpostua amortizatuta geratzen zela.

III.- *Informazioa kudeatzeko teknikari laguntzaile* lanpostuaren jabetza 2016ko apirilaren 1etik aurrera egingo da, eta abenduaren 31 arte behin-behinekoa izango da (moldatze-aldia). 2017tik aurrera, bi aldeek eragozpenik jartzen ez badute, behin betikotzat emango da adierazitako berresleipena.

Hortaz, kontuan hartuta hemen proposatzen den neurria alde aurretik langileen ordezkariekin negoziatu dela, espedientean dagoen dokumentazioa ikusi ondoren eta Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Behin betiko berresleipena onartzea, eta lanpostu hori HAZ departamentuan finkatzea.

8.- GIZARTE LANGILE BAT BESTE LANPOSTU BATEAN KOKATZEA

2016 I 399 0071 espedientea

E.E.B. andrea koordinazioko gizarte langile lanpostua betetzeko izendatu zen 2016ko apirilaren 18an, zerbitzu-eginkizunetan. Baina 2016ko azaroan idatzia aurkeztu du adierazteko aipatutako lanpostuari uko egin nahi diola eta oinarritzko gizarte langile lanpostu batera atxiki nahi duela.

Bestalde, duela gutxi, A.L.A. andreari jarduneko zerbitzura itzultzeko eskaera onartu zaio, eta bere kidego edo eskalako plaza huts batera behin-behinean atxiki da. A.L.A. andrea 2016ko abenduaren 1ean koordinatzaile lanpostura atxiki da, eta egoera horretan egongo da lehiaketa edo izendapen aske baten bitartez behin betiko destinoa lortu arte. Aldi berean, E.E.B. andreak ere data horretan, behin-behinean, oinarritzko gizarte langileei dagokien lanpostu huts baten jabetza hartu zuen, atxikipen edo berrizendapen horrek betiko indarra lortzeko izapideak martxan jarri eta osoko bilkurak onartzen dituen arte.

Halaber, 2014ko irailaren 24an onartutako udal antolaketa berriak aldaketak eragin zituen hainbat departamentutan, baita Gizarte Zerbitzuetan ere. Honela jaso zen "Trantsiziozko funtzionamendu aldia" izeneko dokumentuan:

“Gizarte langileen lanpostuak birformulazio bat jasan dute. “Kordinazioko gizarte langile” lanpostua sortu da, eta “programa, zerbitzu eta prestazioetako gizarte langile” lanpostu bat desagertu da.”

Izan ere, lehen halako bi lanpostu zeuden bereizita: bata, hirugarren adinean zentratua; eta, bestea, haurtzaroan. Beraz, 2014an onartutako antolaketa berri horren ondorioz, hirugarren adinaren arloari zegozkion eginkizunak oinarrizko gizarte langileen artean banatu ziren. Aipatutako bi lanpostu horien titularrak E.E.B. eta A.L.A. ziren, hurrenez hurren.

Ildo beretik, gizarte langileei dagokienez, haxe da egungo plantilla organikoak eta lanpostuen zerrendak jasotzen dutena:

Plantilla organikoa:

Erdi mailako teknikarien klasea:

1.1.13 kodea – 6 Gizarte langile plaza, 4 jabetzan eta 2 hutsik

Lanpostuen Zerrenda (LZ):

1.1.135 kodea – Oinarrizko gizarte langileak, 4 lanpostu.

1.1.168. kodea – Programa berezietako gizarte langilea, 2 lanpostu(*)

(*) “Programa berezietako gizarte langile” lanpostu bat amortizatu egin beharko da “koordinaziorako gizarte langile” lanpostua betetzen denean.

Udal antolakuntza berri hori onartu zenean, lanpostu berriak lehiaketa-sistemaren bitartez hornitzea lehenetsi zen, baina, kasu honetan, karrerako funtzionario baten jatorrizko lanpostua amortizatuta geratzen da eta destinoa bilatu behar zaio. Hori dela eta, lanpostuz aldatzeko legezko prozedura erabili beharko litzateke, eta 190/2004 Dekretuak 44. artikuluan jasota dakarrena izan daiteke aukera bat:

“44. artikulua – Langileen berrizendapena.

1.- Giza-baliabideak arrazionalizatzeko programak aplikatu izanaren ondorioz lanpostu-ezabatzea pairatzen duten funtzionarioak berrizendapen bidez beste lanpostu batean atxiki daitezke.

2.- Langileen berrizendapenak, langileen ordezkariekin negoziatuko diren giza baliabideen arrazionalizazio-programak aplikatu izanaren ondorioz burutu daitezkenak, gaitasunari, prestakuntzari, esperientziari eta antzinatasunari buruzko irizpide objektiboen arabera egingo dira. Irizpide horiek arrazionalizatzeko programetan zehaztuko dira.

3.- Berrizendapen bidez esleitu den lanpostuari funtzionario bat atxikitzeak behin betiko indarra izango du.”

Beraz, 44. artikulua dioena aintzat hartuta, berrizendapenek arrazionalizatzeko programak garatzea eskatzen dute, eta langileen ordezkariekin negoziatzea. Dena dela, lanpostu-aldaketa horrek 2014ko antolakuntza berrian du jatorria, eta erabaki horren ondorio bat da. Arestian adierazi den moduan, LZk ere lanpostu horren amortizazioa aurreikusten du, 2014ko irailaren 24an osoko bilkurak hartutako erabaki horren ondorioz.

Hortaz, kontuan hartuta hemen proposatzen den neurria alde aurretik langileen ordezkariekin negoziatuta dela, espedientean dagoen dokumentazioa ikusi ondoren eta Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Behin betiko berresleipena onartzea, eta E.E.B. andrea oinarrizko gizarte langile lanpostu batean berrizendatzea, kontuan hartuta programa berezietako gizarte langile lanpostu bat amortizatu egiten dela.

9.- ZELAI ONDO AUZOKO FATXADEN BALDINTZA ESTETIKOAK ETA APAINDURAKOAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA

2016 H 133 0001 espedientea

Aztergai honi dagokionez, idazkari andreak akordio-zirriborroa irakurri du, eta ondoren gaia eztabaidagai eta bozketan jarri dute. Emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Ondorioz, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz, erabaki hau hartu du:

“Zelai Ondo plazako eraikin multzoa Zarauzko hiri antolamenduaren plan orokorraren 15. arean dago.

Zelai Ondoko eraikuntza eta espazio libreak sartuta daude plan orokorreko ondare arkitektonikoaren katalogoan. Toki-intereseko ondasun higiezinaren 2. kategoria eman zitzaien (10.3.08. artikulua).

2016ko apirilaren 11n egindako bilera batean, Hirigintzako informazio-batzordeak eskatu zuen malgutasun handiagoa edukitzea fatxadak isolatzeko proposamenen inguruan, eta ez baztertzearik merkatuak efizientzia energetikoa hobetzeko eskaintzen dituen material berriak.

Informazio-batzordearen eskaera aztertu ondoren, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak ordenantza bat idatzi du; asmoa da jasotako irizpenak eta ondare arkitektonikoaren babesa bateratzea.

Ordenantzaren proposamena Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Ordenantzaren proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea ZELAI ONDO AUZOKO FATXADEN BALDINTZA ESTETIKOAK ETA APAINDURAKOAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZARI.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Jendaurreko informazio izapidea iragarkien bidez jakinaraziko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabalitzen diren egunkarietako batean. Halaber, ordenantzaren testu osoa Udalaren web-orrian jarriko da.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordenantza berria behin betiko onartutzat hartuko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, ordenantza indarrean sartzeko, testua osorik argitaratu beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.”

ZELAI ONDO AUZOKO FATXADEN BALDINTZA ESTETIKOAK ETA APAINDURAKOAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

1. artikulua.- Sarrera

Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 15 arean, Zelai Ondo plazako multzoaren parte diren eraikinen fatxaden baldintza estetikoak eta apaindurakoak arautzea da Ordenantza honen helburua.

2. artikulua.- Arau orokorrak. Obrak fatxadan

2.1- Lizentzia eskatzea

Orokorrean, eta beharrezkoa denetan proiektu teknikoak aurkeztu behar izatetik aparte, lizentzia eskaerarekin batera honakoak aurkeztu beharko dira:

- Obren azalpen osoa (materialak, koloreak, eta gainontzekoak ondo zehaztuta).
- Eraikinen fatxadaren edo fatxaden argazkia koloretan, eta proposamenaren muntaia.
- Fatxadaren plano akotatua (osoa edo partziala) 1/50 eskalan.

2.2.- Homogeneotasuna eraikinen fatxaden trataeran

Nahiz eta eraikin bakoitzean jarduerak modu independentean gauzatu ahal izango diren, trataera eta irtenbide arkitektoniko homogeneoa exijituko zaie ondorengo bi eraikin multzo hauei:

- Bi ezkaratza dituzten eraikinek osatutakoari, alegia:

- Zelai Ondo 2 eta 4
- Zelai Ondo 6 eta 8
- Zelai Ondo 10 eta 12
- Zelai Ondo 14 eta 16
- Zelai Ondo 18 eta 20
- Araba 21 eta 23

- Ezkaratza bakarra duten eraikinek osatzen dutenari, alegia:

- Zelai Ondo 1
- Zelai Ondo 3
- Zelai Ondo 5
- Zelai Ondo 7
- Zelai Ondo 9

- Zelai Ondo 11
- Zelai Ondo 13
- Bizkaia 41
- Zelai Ondo 15
- Zelai Ondo 17-
- Zelai Ondo 19
- Zelai Ondo 21.
- Zelai Ondo 23

2.3.- Fatxaden trataera

Eraikuntza bakoitzean osotasunean diseinatuko da fatxaden trataera , beheko solairua barne, emaitza arkitektonikoki bateratua izan dadin.

Konposizioaren erreferentziako lerro finkoak harmonizatuta egingo da fatxaden trataera berria (erlaitzak, teilatuko hegalkak, hegalkinak, zokaloak, ertzak, egitura eta abar). Irten egiten diren egiturazko elementu originalak nabarmenduko dira bereziki.

Efizientzia energetikoa hobetzeko, fatxadako bolumetria zertxobait aldatu ahalko da, betiere, jatorrizko lerrokadura ahal den gutxien aldatuta.

Fatxadan bestelako testurak jarri ahalko dira, baina betiere, kolore argiak erabiliko dira, batez ere zuria; nabarmendu behar diren elementuak kolore ilunekoak izango dira, batez ere grisak.

Ezingo da fatxaden altuera aldatu, ez eta teilatua forma ere.

Konposizio tipologikoaren aldetik berezko ezaugarriak eta ezaugarri bereziki nabarmenak ez badituzte, alboko eta atzealdeko fatxadek fatxada nagusiaren konposizio eta material berdinak edukiko dituzte.

Debekatu egingo dira akaberako material eta trataera hauek: bistako adreilua, bistako hormigoia, fibrozementua, plastikoak orokorrean, PVCa, beira islatzailea eta, oro har, akabera distiratsuak.

2.4.- Arotzeriak

Eraikinen multzo bakoitzean (2.2 atala), batez ere kolore, testura, xehetasun, zatikatze, ebakidura eta dimentsio berekoak izango dira kanpoko arotzeriak.

Debekatuta daude ageriko pertsiana kaxak edo kanpoaldekoak.

2.5.- Instalazioak

Fatxadan modu ordenatuan egokituko dira instalazioak: energia elektrikoa, telefonia, gasa, edota beharrezkoa den beste edozein.

Kanpoko paramentuetan dauden saretak edo bestelako ebakuazio-elementuak tokiz aldatuko dira (keak edo gasak, aireztapena, aire girotzea), ebakuazioa estalkitik egiteko. Nahitaezkoa bada horiek fatxadara ateratzea, bao baten barnean jarriko dira (arotzeriaren arabera txertatuta) edo fatxadaren horman, bere kolore berean. Inolaz ere ezingo dira fatxadako planotik atera.

Debekatuta dago fatxadetan antenak jartzea.

2.6.- Begiratokiak, galeriak eta balkoiak

Ezingo da begiratokirik eta galeriarik eraiki, ez eta balkoirik itxi ere, 3. artikuluan jasotako salbuespenetan izan ezik (arau partikularrak) .

2.7.- Esekitokiak

Debekatuta dago arropa esekitzea espazio publikoen aldera. Fatxadak espazio horietara begira bakarrik dituzten eraikinetan, beharrezkoa izango da esekitoki bat edukitzea, edo patio pribatuetan, edo balkoian zursare baten atzean ezkutatuta.

3. artikulua.- Arau partikularrak.

Arau orokorren salbuespen gisa, Zelai Ondo 3-5-7-9-11-13-15-17-19-21 eraikinetan ondorengo jarduerak baimenduko dira, betiere, eraikin bakoitzeko jabe elkarteak proiektu bateratua aurkezten badu.

3.1. Fatxada nagusia

Balkoiaren zati bat ixteko aukera emango da (balkoi bakoitzaren azaleraren erdia). Hain zuzen, fatxadaren erdialdetik hurbilen dagoen balkoi-zatia itxi ahalko da. Gainontzeko balkoi-zatia irekita mantendu beharko da.

Lehenagotik itxita dauden balkoiak legeztatu ahal izango dira, baldin eta aurreko paragrafoan jarritako baldintzak betetzen badituzte.

Debekatuta dago fatxadako horma kendu edo eraistea, itxitako balkoiaren azalera etxebizitzari gehitzeko.

3.2. Atzealdeko fatxada

Balkoiak edota esekitokiak eraikitzea baimenduko da.

Proiektu bakoitzak konposizio arkitektoniko bateratua proposatu beharko du, eta kontuan edukiko du eraikitzeoak diren esekitoki edo balkoiek zer nolako lotura duten fatxada horietan dagoeneko jarrita dauden igogailuekin.

Balkoi edo esekitoki horien hegala gehienez ere 1 m-koa izango da.

Balkoien eta esekitokiaren karela azalera leun bat izango da, beltza, eta batez ere kristalezkoa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Zelai Ondo 3-5-7-9-11-13-15-17-19-21 eraikinen trataera arkitektonikoa eta fatxaden konposizioa (proposamenen planoak).

Ordenantzan, izaera arautzailea eta orientatzailea duten proposamen batzuen planoak daude; proiektuak baimentzeko eta lizentziak emateko jarraibide modura erabili ahalko dira plano horiek:

P.1.- Balkoi eta esekitokiaren proposamena –atzealdeko fatxadak- (1/400 eskala)

P.2.- Balkoi eta esekitokiaren proposamena –proposamen tipoa- (1/150 eskala)

P.3.- Itxiturak fatxada nagusietan (1/150 eskala)

Bigarrena.- Proposatutako koloreak

Ordenantzak kolore hauek proposatzen ditu jarraibide modura, proiektuak baimentzeko eta lizentziak emateko:

a.- Fatxadak

- RAL 9003. Zuria, seinaleak
- RAL 9010. Zuria, purua
- RAL 9016. Zuria, trafikoa

b.- Egiturazko elementuak

- RAL 9022. Perla koloreko gris argia
- RAL 9023. Perla koloreko gris iluna

c.- Balkoien barandak eta esekitokiaren lamak:

- RAL 9004. Beltza, seinaleak
- RAL 9005. Beltza, bizia
- RAL 9011. Beltza, grafitoa
- RAL 9017. Beltza, trafikoa

Aurreko koloreekin antz nabarmena duten beste kolore batzuk ere baimendu ahal izango dira.

2. ERANSINA KOLOREAK

Fatxadako kolore nagusia

RAL 9003	Zuria, seinaleak
RAL 9010	Zuria, purua
RAL 9016	Zuria, trafikoa

Egiturazko elementuak

RAL 9022	Perla koloreko gris argia
RAL 9023	Perla koloreko gris iluna

Balkoietako barandak eta esekitokietako lamak.

RAL 9004	Beltza, seinaleak
RAL 9005	
RAL 9011	
RAL 9017	

10.- HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA, TALAIMENDI EREMUKO 19-2 AREAKO –OD SANTAITURRIETA– ANTOLAMENDU XEHATUAREN ZEHAZTAPENEI DAGOKIENA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

2016 H 700 0013 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, udal taldeek beren jarrera azaldu dute eta bozketari ekin diote. Honela geratu da:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	2	2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Horrrela, bada, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2016ko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea hiri antolamenduaren plan orokorraren aldatetari, Talaimendi eremuko 19-2 areako –OD SANTAITURRIETA– antolamendu xehatuaren zehaztapenei dagokienari.

Zarauzko Udalak berak abiarazi zuen espedientea, eta Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak idatzi zuen dokumentua.

Dokumentuak honako proposamen hauek zeuzkan:

- Aukera ematea etxebizitza kopurua bikoizteko, familia bakarreko etxebizitza isolatuko eraikinetan edo bi familiako eraikin atxikietan.
- Eraikinen tipologia aldatzeko egingo diren plan bereziek errespetatu beharreko oinarrizko baldintzak definitzea (etxebizitza kolektiboa).

Espedientea jendaurrean egon zen epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Udal plangintzako aholku batzordeari espedientearen berri eman zitzaion.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 12 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren quorum-arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin betiko onespena ematea hiri antolamenduaren plan orokorraren aldaketari, Talaimendi eremuko 19-2 areako –OD SANTAITURRIETA– antolamendu xehatuaren zehaztapenei dagokienari.

Onartu den dokumentua 2016ko irailaren 30ekoa da, eta Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak idatzi du.

Bigarrena.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta ordenantzak. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.”

11.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA

2016 O 050 0001 espedientea

2016ko urriaren 27an egindako Batzar Nagusian, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hasierako onespena eman zion bere Estatutuen aldaketari.

Proposatutako aldaketak estatutuen 3. artikuluari beste idazkera bat eman nahi dio, kontsortzioek administrazio publiko bati atxikita egon behar baitute.

Proposatu den aldaketak honako hau du helburu: urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, jasotako xedapenei egokitzea Estatutuak.

Ikusita urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak) 120. artikuluan, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak) 105. artikuluan, eta apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauak (Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituenak) 23. artikuluan xedatutakoa,

Ikusita, halaber, Udaleko idazkari nagusiak egindako txostena eta Antolakuntzako informazio-batzordeak emandako irizpena, Udalbatza legez osatzen duten 21 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren quorum-arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehena.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioak proposatuta, Estatutu arautzaileen 3. artikulua aldaketa onartzea, era honetan:

Gaur egungo idazkera:

3. artikulua. Nortasuna eta gaitasun juridikoa.

Kontsortzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.

Idazkera berria, onartutakoaren arabera:

3. artikulua. Nortasuna eta gaitasun juridikoa.

1.- *Kontsortzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.*

2.- *Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 120. Artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita geratzen da. Foru Arauak atxikitze horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.*

Bigarrena.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioari erabaki honen berri ematea.

12.- 2017. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA. HASIERAKO ONARPENA.

2016 D 200 0014 espedientea

Lehenbizi, **idazkari** andreak irakurri egin du Antolakuntzako informazio-batzordeak 2016ko abenduaren 22an egindako bileran eman zuen irizpena, eta Aurrekontua aztertze eta eztabaidatzeko jarraituko duten prozeduraren berri eman du.

Segidan, Ogasun eta Finantza arloetako zinegotzi arduradun **Arana** jaunak aurrekontuaren aurkezpena egin du eta nondik norakoak azaldu ditu.

Aurrekontua aztertze aurreikusitako prozeduraren arabera, hurrena, udal taldeek aurkeztutako zuzenketak defendatu, eztabaidatu eta bozkatu dituzte.

OSOKO ZUZENKETA

– IRABAZI ZARAUTZ udal taldea

